

EUSKALGINTZA HITZARTUA IPAR EUSKAL HERRIAN

Lodosa, 2001-X-19

Erramun Baxok

2000ko abenduaren 22an Baionako suprefeturan sinatu zen Euskal Herriko hitzarmen berezia 2001-2006. Hori izan zen urraspide luze baten jomuga, lurralde antolaketa proiektu bat abian ezarri zuena. Nire gaia egoera horretan kokatzen da, baina hizkuntza politikan mugatuz. Frogatu nahi nukeen hipotesia da Iparraldean euskalgintza aro berri batean sartzen ari dela, “euskalgintza hitzartua”. Alabaina antolaketa ekimen guztiak plan-kontratu batean sartzen dira, ekimen bakoitza delarik “egitasmo krontratatu bat”, “*un projet contractualisé*”. Kontratu batek suposatzen du egitasmo bat eta baliabideak. Antolaketa urraspide honetan zein diren euskalgintzaren etapak erakutsi nahi nuke, 4 puntutan:

- lurralde antolaketaren izpiritua;
- euskalgintza proposatua;
- euskalgintza hitzartua;
- hizkuntza kontseilua.

Lurralde antolaketaren izpiritua

Kontzeptu berri bat bada, gero eta arrakasta handiagoa dena lurralde-antolaketa (*aménagement du territoire*). Frantzian bi lege bada lurralde-antolaketa aitzinarazteko: *Pasqua* legea (1993) eta *Voynet* legea (1999), *Voynet* da ingurumenaz arduratzen den andere ministro bat alderdi berdekoa.

Zer da lurralde antolaketa?

Definizioa laupabost idea nagusitan sar daiteke.

Bat. Herria (*le pays*) da lurralde antolaketaren eremu naturala. *Pasqua* legearen arabera herria ez da baitezpada administratiboki mugatua den eremua, udalerriak, departamenduak edo eskualdeak diren bezala. Herria da bizitza eremu bat (*bassin de vie / bizitza arroa*), jendeek harremanak dituzten gunee bat, lanarantzat, zerbitzuentzat, aisialdiarentzat, azpiegituren eta bideen aldetik eta beste.

Bi. Herriak badu batasun bat, hobeki esanez elkartasun bat sail anitzetan. Ekonomia mailan, lehen puntuan ikusi dugun bezala, bai eta ere historian eta kulturari. Hau idea berria da, herriaren nortasun kolektiboak baduela zer ikusirik adibidez garapen ekonomikoarekin, eta nortasun kolektibo horretan sartzen dira tokiko hizkuntzak.

Hiru. Garapena da herri antolaketaren helburua. Ez bakarrik garapen ekonomikoa, bai eta oro har atseginaren eta elkartasunaren garapena. Alabaina orain arte garapenaren irizpidea zen “barne ekoizpen gordina” (*pib*). Baina ohargarri da lantegi anitz den toki aberats batean, batzutan jendea gaizki bizi dela, zerbitzu faltaz eta berdin lan faltaz. Beraz gauzak antolatu behar dira ahalaz gizarte osoa uros bizi dadin, hedonismoaren filosofiak badu alde onik.

Lau. Antolaketaren dinamikan parte hartzen dute bai gizarte politikoak bai eta ere gizarte zibilak. Orain arte alde batetik gizarte zibilak lan egiten zuen, ekimenak hartzen, zergak ordaintzen. Eta, bestalde, gizarte politikoak erabakiak hartzen ditu, diru publikoa xahutzen eta ahalaz hauteskundeak irabazten. Sail askotan, sistema horren ondorio anarkismo hutsa zen, bereziki hirigintzan. Normahik nonnahi etxeak eraikitzen ditu, agintariak debekatzen eta diruaren ordain debekua kentzen.

Bost. Antolaketa kudeatzen da ez gobernu moldean, bainan “gubernantza” moldean (*gouvernement, gouvernance*). Gobernua da erabakiak toki batean hartzen direlarik eta egiketa beste toki batean. Hori da kudeantza klasikoa. Aldiz antolaketa dinamikan erabakiak gune askotan moldatzen dira: gizarte zibilak bere beharrak eta nahiak adierazten ditu, jakitunak araberako aholkuak ematen ditu (*consulting*), diru ekarleek bere helburuak finkatzen dituzte eta azkenean zerbitzu publikoaren arduradunak erabakia hartzen du. Urraspide horri deitzen diote “gubernantza” edo “garapen hitzartua”, lehenagoko “autogestioa”-ren itxurakoa.

Iparraldeko lurralde antolaketa

Iparraldean lurralde antolaketaren urraspidea 1993an hasi zen. Alabainan orduko eskakizun nagusia Euskal Departamenduarena zen: inkestek eta manifestaldiek erakustera ematen zuten gehiengo handi baten nahia zela arrazoi askoentzat eta bereziki Iparraldeko Euskal Herriak ukan zezan bere egitura administratiboa. Beraz, eskakizuna demokratikoa da eta gainera Konstituzionala, departamendua oroz gainetik egitura errepublikanoa da. Zorigaitzez dakigun oztopo diplomatikoak badira Paris eta Madrilen artean.

Bestalde, 1996eko inkesta soziolinguistikoak erakutsi zuen euskararen egoera larria Iparraldean, denbora berean Hegoaldean euskara abiadura handian garatzen ari zelarik. Hortakoz bi eskakizun elkarri lotu genituen: Euskal Departamendua eta euskararen ofizialtasuna.

Sapède orduko suprefetak martxan ezarri zuen “Euskal Herri 2010” propektibarekin. Lau urtez gogoeta sakonak egin ziren lurraldeaz, bereziki euskaltasunaren eraginaz ekonomia garatzeko, nortasun kolektiboak zer duen ikustekorik modernitatearekin, zergatik familiako hizkuntz transmisioak huts egiten duen. Bost ehun bat gizarte eragilek gogoetaldi bat eraman zuten eta departamenduaren orde bi egitura sortu ziren:

- Garapen Kontseilua gizarte zibila mugiarazteko, proposamenak egiteko azpiegituren alorrean, ekonomian, kulturgintzan.
- Hautetsien Kontseiluak tokiko gizarte politikoa biltzeko eta bere onespena adierazteko Lurralde antolaketaren eskemari”. Baina eskema fformatua gauzatzeko gogo ona bazuten, baina ahalik ez eta dirurik ez.

Euskalgintza proposatua

Hizkuntz antolaketa

Garapen Kontseiluak bere lehen bilkuran onartu zuen hizkuntz antolaketaren kontzeptua, Quebecetik etorri zaiguna, hemen ez bazen ere anitz aipatzen.

Hizkuntz antolaketa da hizkuntzen kudeantza, hizkuntza bat baino gehiago erabiliak direlarik lurralde batean eta bereziki hizkuntza bat arriskuan delarik. Hori gertatzen da gure herrian, hizkuntz borrokarengatik euskara ahuldu baita. Familiako transmisioa ez delarik berenaz jarraitzen, gizarte osoak zerbait egin behar du jatorrizko hizkuntza ez dadin suntsi, frustrazio kolektibo askoren iturburu bailitake, eta kultura ezberdinak elgarrekin lasaitasunean iraun dezaten.

Nabari da euskararentzat hizkuntz antolaketa beharrezkoa dela eta faktore guztiak erabiltzekoak direla. Aterabide mugatuak ez dute ondorio onik. Iparraldean azken 30 urte hauetan euskal elkarteek harrigarriko indarra egin dute: *Ikas* pedagogia mugimendua, ikastolak, irakasle ibilkariak, AEK eta jende helduen euskalduntzea, euskal irriatiak, ikasgela elebidunak, Udaleku eta beste. Halere denbora berean 16 - 25 urteko gazteen euskalduntasuna erori da %eko 27tik % 11ra. Aldiz Euskal Autonomia Erkidegoan euskarak aitzinamendu pizkorra egin du %eko 21etik %eko 33ra gazteetan eta %eko 62ra eskoletako haurretan. Bi eskualdeen arteko ezberdintasuna hizkuntz planifikazioan dago.

Hizkuntz antolaketaren eskema moldatu genuen, Hegoaldea ereduztat hartuz, 40 kideko lan talde zabalean: hautetsi, irakasle, arduradun, euskaltzain, euskaltzale, hizkuntz politika onargarri bat, “ideologiarik gabekoa” (*politiquement correct*), laburbildu zigun, bi hizkuntzetan, bost ardatz nagusiren inguruan:

1. “Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren aintzinaraztea haurrentzat eta jende helduentzat”:
 - euskararen eta euskarazko irakaskuntza zabaltzeko egitaraua,
 - euskal ikaskuntzaren aldeko gogoia piztea,
 - irakasleen bilketa eta formakuntza,
 - eskola inguruko ekintzak euskaraz,
 - pedagogia tresnen ekoizpena *Ikas* pedagogi zerbitzuaren bidez,
 - eskoletako horniduren berrikuntza ikastolak barne,
 - irakaskuntzaren jarraipena kolegiotik unibertsitatetara,
 - formakuntza jarraikian ari direnak ofizialtzea.
2. “Hedabideetan euskararen erabilera sustatzea”:
 - euskarazko 3 elkarte irratien garapena,
 - euskarazko irrati publikoa sortzeko azterketa,
 - Euskal Telebistaren ikusmen ona lurralde osoan.
3. “Euskararen ezagutza sakontzea”:
 - Euskaltzaindiko egitarauen aldeko sustengua,
 - euskal ikergunearen antolaketa Baionan.
4. “Bizitza publikoan euskararen lekua zabaltzea”:
 - sinalakuntza elebiduna lurralde osoan ezartzeko plana,
 - euskararen erabilera zerbitzu publikoetan,
 - hedabide berrietan euskara sartzeko ekimenak.
5. “Hizkuntza Kontseilua sortzea”:
 - erakunde hau asmatua zen egitarau osoaren eramateko;
 - bainan botere politikoaren eta elkarteen arteko konpetentziak ez zirelako ongi definituak, ez zen berehala sortu administrazioaren mesfidantzagatik, bai eta elkarteak zatituak zirelako.

“Ideologia” izpi bat ere aurreratu genuen, ofizialtasuna, onarmena eta lurraldetasuna sinbolikoki bederen aipatuz: “Lehentasuna duten norabide hauei esker, euskararen aldeko hizkuntza politikarako zutabeak eraiki daitezke, ofizialki onartuz nortasun hizkuntzak hartzen duen oinarritzko estatutua: “Euskal Herriaren hizkuntza euskara da”.

Hautetsien Kontseiluak 1997ko “deklina-bide eraginkorretan” Garapen Kontseiluaren proposamenak onartu zituen eta 12 ekintza definitu beren aurrekontuarekin. Baina gauzak hortan egon ziren mugitu gabe. Gizartea bai mugitu zen manifestaldi handi bat eginez (10.000 persona inguru) Euskal departamenduaren eta ofizialtasunaren alde. Gerorako *Deiadar* ere bildu zen Estatuaren eskaintza murrizteko.

Euskalgintza hitzartua

Eta hona non 2000ko abenduaren 22an, Estatuak, prefetaren bitartez, bat-bateko eskaintza egiten digun, Euskal Herri hitzarmen berezia 2001 - 2006 (*Convenhon spécifique Pays Basque 2001 - 2006*). Kontratu politiko honek, eztabaidatu 79 proposamen hartzen ditu eta 10 kapitulutan sailkatzen: kultura, ingurumena, laborantza, arraintza, industria, turismoa, hirigintza, mugaz gaineko harremanak, Euskal Herriaren animazioa.

Lehen kapitulua da “hizkuntz politika”, esaera hau lehen aldikotz agertzen baita idazki ofizial batean. Hitzarmen berezi honetan badira bi proiektu zerrenda.

Lehen zerrendan sartzen dira 2000 - 2006 plan kontratuan gauzatuko diren 10 ekimenak 6 urteko presupostuarekin orotara 6,1 miloi euro (40 milioi libera) nonbait han. Hitzarmen Bereziak ekintza hau hautatu ditu, berez onargarriak direlaketz finantza kontratuz burutzeko:

- “Hizkuntza Kontseilua sortzea.
- Eskolako euskal irakaskuntzaren aldeko gogoa piztea.
- Eskola inguruko euskal ekintzak sustatzea.
- Formakuntza jarraikian ari direnak ofizialtzea.
- Euskaltzaindiaren ikerketa egitaraua sustengatzea.
- Iker zerbitzua Baionan kokatzea.
- Euskarazko ikas tresnen ekoizpena segurtatzea.
- 3 elkarte irratia elkarlan bati buruz eramaitea.
- ETBren harrera hobetzea lurralde osoan eta euskararen lekua zabaltzea irradi eta telebista publikoetan.
- Diru laguntza euskara hedatzeko Internet sarean”.

Bigarren zerrendan lerrotatuak dira sei egitarau: euskal ikaskuntzaren garapena, irakasleen formakuntza, irratigintza eta tebegintza publikoak, seinale-tika eta administrazio elebiduna. Ekintza hauek ez dira hitzarmenean sartzen, erakunde ofizialen gain direlaketz, hezkuntza ministeritza, komunikazio ministeritza eta beste.

Denbora berean definitu da hizkuntz politika hau eramanen duen erakunde hirukoitza. Erakundearen adar bakoitzak baditu bere eginbideak.

Bat. Obragintza Publikoa da hizkuntz politikaren erabakitzailea eta hor daude lau mailetako ordezkariak, estatu, eskualde, departamendu eta udalarteko euskal sindikatukoak.

Bi. Elkarte eta erakundeetako Obralaritzaren gain da erabakiak diren proiektuak programatzea, gauzatzea eta ebaluatzea, AEK, Euskaltzaindia, Iker, Ikas, Euskal Irratiak, ETBren hedatzaileak. Hiru ekintza badaude, euskaren al-

deko gogoia, eskola inguruko ekintzak, Interneten erabilera, eragileak ez baitira oraindik finkatuak.

Hiru. Hizkuntz Kontseilua izanen da erabakitzaileen eta obralarien arteko bilgunea ekimenak koordinatzeko, proposamen berriak egiteko, egitarauak begiratzeko eta beharrez berritzeko, euskararen estatutuaz arduratzeko.

Epeak ere finkatu dizkigute. Urriaren 3an DATAR lurralde antolaketa deraman erakundeak bere proposamenak adierazi dizkie diru emailei. Orain aurrekondua bozkatzeko dituzte eta hitzarmena zabalduko da berantenez abenduaren 31n, omen. Plan kontratua, berriz, aztertuko da 2003an eta bururatuko 2006an, lehen zerrendako ekintzentzat.

Hizkuntz kontseilua

Hizkuntza Kontseiluak biltzen ditu 4 kolegio: botere publikoen kolegioa, euskalgintzan ari diren erakunde eta elkarten kolegioa; erakunde federatzaileen kolegioa da EKE egitasmoan agertzen den gauza ohargarri bat. Garregun egitura federatzaileak bost dira: Euskaltzaindia, EKE, Euskal Konfederazioa, *Ikas*, bai eta ere Garapen Kontseilua. Alabaina euskara aitzinarazteko, mugimendu guztiak bildu behar dira, euskalgintza, kulturgintza, irakaskuntza, bai eta ekonomiaren garapena. Nola euskalduntzen ahal liteke jendez husten ari den lurralde bat?

Lehenbailehen mobilizatu beharko dira beste gizarte indar batzu, hala nola sindikatak, unibertsitatea, hedabideak. Laugarren kolegioa ezarri da "persona kalifikatuentzat", leku bat egiteko Nafarroako eta Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkariarentzat. Alabaina euskarak Euskal Herri osoan aitzinatu behar du.

Hastapenean erakunde handi bat asmatu genuen zernahi zerbitzu emaiteko herriko etxeei, erakunde publikoei eta inpresei, galdegiten zuten neurrian. Nehork ezin zuen erran nola antolatuko zen euskalgintza guztia eraman zezakeen lantegia. Idazkaritza ez da dena egiteko, baina denen artean hitzartzeko nola joka euskararen aitzinarazteko.

Hizkuntza Kontseiluaren helburua orain argi ageri da: euskararen aldeko kizkuntza politika asmatzen eta bideratzen laguntzea, hastapenean Hitzarmen Berezia hautatu diren 10 ekintzak bai eta ere Antolaketa Eskeman diren beste 5 ekintzak, beti balio dutenak, ez badira ere plan kontratuan idatziak. Geroxago Hizkuntza Kontseiluak proposatuko ditu Eurokartako 39 hizkuntza neurriak Konstituzioaren aldetik onargarriak direnak. Bai eta ere Kortsikan eta Alsazian erdietsi dituzten aitzinamenduak, "berdintasun errepublikanoaren" izenean.

Euskararen kontseiluaren helburuak

Euskararen kontseilua hizkuntza antolaketaren buruzagitzari lotua da. Ez da elkarteak biltzen dituen beste federazioa bat. Hizkuntza politika eramateko tresna bat da, Euskal Herriko hitzarmen bereziak aipatzen dituen Obragintza publikoaren eta Obralaritzen arteko koordinazioa segurtatuko duena. Helburuak:

1. Hitzarmen berezian 2000ko abenduan hitzartu ziren hizkuntza ekin-tzak kudeatzea eta Hautetsien Kontseiluak 1997ko martxoan bere “deklinabi-de eraginkorretan” erabaki zuen Hizkuntza antolaketa eskema aitzinaraztea;
2. proposamenak egitea eta abisuak aginte publikoei helaraztea hizkun-tza politika hobetzeko, gizartearen eskaerak agertaraziz;
3. Hizkuntza egitarau berriak Obragintza publikoari proposatzea, onar-mena eta diru laguntza ardiesteko.

Hizkuntz Kontseiluaren funtzioak

Hizkuntz kontseiluak koordinazio, proposamen eta neurketa funtzioak be-tetzen ditu hizkuntza politikari buruz.

Koordinazio funtzioa - Egitarau berarentzat bizpahiru obralari direlarik el-karrekin hitzartu behar dute, adibidez gurasoen motibatzeke eta eskola ingu-ruko ekintzentzat. Elkarte batzu badira euskal zerbitzuak eskaintzen dituzte-nak, EKE, Konfederazioa, Kontseilua, Herrienarteko sindikata. Denen artean lana banatuko da, denek ez dezaten gauza bera egin. Bestalde herriko etxeek, erakunde publikoek, elkarteek beren euskal zerbitzuak antolatuko dituzte, eus-kalgintza ahal bezainbat heda dadin.

Proposamen funtzioa - Gaurregun eginbide honek garrantzia handia uka-nen du. Garapen Kontseiluak beste alorretan egiten duen bezala, Hizkuntza Kontseiluak abisuak ongi landuko ditu, jakitunen laguntzarekin nola hezkun-tza elebidunean hala hizkuntza zuzenbidean. Anitz alor bada lantzeko, halere lehenasunetan lehenasuna da euskal ikaskuntza eskaintzea lehen mailako es-kolier orori, ondorioz irakasleen formakuntza eta ikastresnen ekoizpena.

Gainera ezin aipatzeko galde batzu baditugu, erantzun ausartak eskatzen baitituzte. Nolako irratigintza gazteentzat, 10etarik batek euskara dakielarik? Non dira ikastoletako eta gau eskoletako ikasle ohiak? Zergatik familia eus-kaldunetan ere euskara hain xuhur? Zergatik erakundeek herri hizkuntza hain guti erabiltzen dute, legeak onartzen duen baino askoz gutiago?

Begirale funtzioa - Beharrezkoa da noiznahi jakin dezagun euskara zer bilakatzen den eta zein diren euskalgintza ekintzen ondorioak. Hizkuntza be-

hatokiak urtero zabalduko du euskararen egoera eta neurtuko zein den hizkuntza egitarauen eragina gure hizkuntza biziberritzeko.

Prospektiba funtzioa - Hitzarmen Bereziak eta Antolaketa Eskemak eskaintzen diguten hizkuntz politikak badu orokortasun bat eta funtsezko baliabideak emaiten dizkigu. Baina oraingo egitaraua osatu eta aberastu beharko da urratsez urrats. Neurketa eta proposamen funtzioak betetzearekin, Euskararen Kultura behartua izanen da egitasmo berriak antolatzea, geroko obralariekin hitzartuz eta Obragintza Publikoari proposatuz onarpena eta diru laguntza ardiesteko;

Hizkuntza gutituen biziberritzeko teoria frogatuenak erreferentziatzat hartuz, hona zein diren euskararen aldeko hizkuntz politikaren ahulguneak:

- familietako hizkuntza transmisioa indartzea,
- euskal mintzakidegoa berriz piztea,
- jende helduen hizkuntza motibazioa,
- zerbitzu publikoen hizkuntz eskaintza,
- liburugintza eta prentsa idatzia,
- informatika eta entzun-ikusgaien ekoizpena,
- unibertsitate egitarauak,
- eta, jakina, onarpen ofiziala.

Zerrenda honek ez digu kuraia galarazi behar. Alderantziz, Euskal Kontseiluaren eginbide pedagogikoa da obralariak bultzatzea, onartuak diren ekin-tzak su eta gar eramateko. Baina beti gogoan atxikiz deramagun lanaren hedadura.

Eta gero geroak

Balorazio ezberdinak egin dira proiektu honetaz. Ofizialtasuna ez dugu ardietsi, baina bai "euskalgintza hitzartua". Halere guhaurek antolatu genuen euskalgintza plan orokor bat eskuetan dugu eta lehen aldikotz gauzatzeko baliabide batzu eskaintzen dizkugute. Gutiz ez utz, erabil ditzagun, jakinez herritarren euskal gogo delat azkenean etorkizunaren oinarria.

Ezin dugu onartu hamarkadak irauten duen militantziak ez duela euskararen gainbehera gelditu, Hegoaldean gazteen euskaldungoa hamar urtez bikoiztu delarik. Politika ez da arrazoi bakarra. Hizkuntza politika beharrezkoa da. Baina gure desafio historikoa da euskara petikgoran abiatzea elkarrekin, familiak eta eskolak lauzkatuz, kulturkintza eta garapen ekonomikoa uztartuz. Horretarako hiru bide nagusiak dira:

- euskal ikaskuntza zabaltzea, lehen mailako ikasle guztiei,
- euskalguneak indartzea familietan, auzuneetan, hedabideetan,
- euskararen publikotasuna segurtatzea hizkuntza zerbitzuen bitartez.

Geroari buruz itxaropena atxiki behar dugu, Frantziako estatuan ere politika mugitzen ari baita herri hizkuntzen alorrean. Lekuko Jack Lang hezkuntza ministroaren dekretuak herri hizkuntzen ikaskuntzaz, Kortsikako estatusa eta aurkeztu dugun (Ipar) Euskal Herriko Hitzarmen Berezia.

Oinarrizko bibliografia

Alline, Jean-Pierre, *Le droit et les langues régionales, consultation sur l'avis du Conseil de l'Etat du 24 septembre 1996*, Université de Pau et des pays de l'Adour, 1997.

Baxok, Erramun, "Euskararen prospektiba", in *Jakin* 114, 1999.

Carcassonne, Guy, *Etude sur la compatibilité entre la Charte européenne des langues régionales et minoritaires et la Constitution*, Université de Paris X, 1998.

Convention spécifique Pays Basque 2001 - 2006, 22 décembre, 2000.

Conseil de l'Etat, Avis n° 359 461 du 24 septembre, 1996.

Conseil de l'Europe, *Charte européenne des langues régionales et minoritaires*, Strasbourg, 1992

Conseil Constitutionnel, Décision n° 99-412 DC du 15 juin, 1999.

Constitution du 4 octobre 1958.

Euskal Herriko antolaketa eta garapen eskema: norabide orokorrak 1996ko urria, deklinabide eraginkorrak 1997ko martxoa, karten bilduma.

Eusko Jaurlaritza, *Euskararen Jarraipena II*, 1996

Grau, Gérard, *Langues et cultures en France contemporaine*, Conseil de la langue française, Québec, 1982.

Jakin 104, "Ipar Euskal Herria egituratze bidean", Ramuntxo Kanblong, Peio Olhagaray, Koldo Gorostiaga, urtarrila-otsaila, 1998.

Jakin 123/124, "Euskalgintza auzitan?" Joan Mari Torrealdai, martxoa-ekaina, 2001.

Poignant, Bernard, *Rapport sur les langues régionales*, Quimper, 1998.

Toubon, Jacques rapporteur, *Loi n° 94-665 relative à l'emploi de la langue française*, 4 août, 1994.